

EZ DA EGIA (Adierazpen pedagogikoa)

Adierazpen hau sinatzen dugun erakunde eta pertsonok (irakasle, guraso, ikasle eta herritarrok, oro har) biziki kezkatu gaitu errealitatea larriki urratu duten eskola espainiarraren gaineko hainbat sinesmen hedatu izanak. Orain jeneralizatzen ari den pentsamolde baten arabera, egun eskolan eduki gutxi irakasten da, garrantzi gabeko jarduerak egiten dira, eskakizun-maila jaitسي egin da, egungo ikasleak lehenagokoak baino okerragoak dira eta "pedagogia asko" baina irakaskuntza gutxi dago.

Hedabideetan eragin bizia duten pertsona jakin batzuen (literatura, unibertsitate eta, orokorrean, intelektualtasun alorrekoak) jarrerak kezkatu bereziki, sinesmen horiek hedatzean argudio hutsalak —behin baino gehiagotan, irainak— baliatzen dituztelako, eskolaz eta bertan gertatzen diren prozesuez zorrotasun eskaseko ikuspegia erakustean. Hezkuntza, eragin sozial handiko beste hainbat jarduera —medikuntza, justizia, etab— ez bezala, ikuspuntu inozo eta zaharkituetatik sozialki aztertu eta baloratzeak kezkatzen gaitu, hitz batez.

Horregatik, geure burua kolektibo garen aldetik agertzea deliberatu dugu, geure iritzia plazaratzeko, hots:

Ez da egia egungo espainiar eskolan tradizionalaz bestelako eredua nagusi dabilenik

Aspaldi honetan irakaskuntza deskafeinatu eta permisiboa praktikatzen dela eta dagoeneko "betidaniko ezagutza" balioztatzen ez dela sinestea, funtsik gabeko mitoa da. gertatzekotan, kontrakoa jazotzen da. Irakasteko plegu tradizionalaren aurka argudio latzak dauden arren, Espainian nagusi dagoen eskola-kultura oraindik ere oinarritua dago **elkarren arteko loturarik ez duten eta, maiz, zaharkitu eta hutsalak diren edukien zuzeneko transmisioan, ikaskuntza mekaniko eta errepikakorrean, balioztatze selektibo eta zehatzailean** eta adingabekoen eskolaldiaren luzapenean, **etxeko lanak eta zereginak ugari izaki**. Ikasle gehienek, azaltzen zaiena ulertzeko unean eragozpen handiak izaten dituzte eta, beti-beti jazo izan den legez, azterketa egunera arte, informazioa atxikitze gaitasuna eta jakintza identifikatzen dituzte azkenean.

LOGSE legeak unibertsitatez bestelako irakaskuntza ahalegina zokoratu eta "zernahik balio du" leman oinarritzen dela sinestea topikoa da eta, halakotzat, ez dator errealitatearekin bat. Lege horren idearium psikopedagogikoa, aldaketa biziki interesgarriak egitea planteatu zuen arren, behin ere ez zen erabat sartu ikasgela gehientsuenetan; hein handi batean, **eskola hobetzea ez baita lege hutsten kontua, aldaketa sozial, kultural eta komunitarioaren ondorio baizik**.

Ez da egia espainiar eskolan eskakizun-maila jaitسي dela

Aski da lehenagoko eta oraingo testu liburuak elkarrekin erkatzea, gero eta eduki gehiago irakatsi nahi direla, formulazio abstraktuagoekin eta ikasle gazteagoei.

Maiz familia giroko arratsaldeetako protagonista diren testu-liburuak guraso askok ez dituzte ulertzen. Gero eta zailagoa dute irakasleek programa ikasturtean amaitzea. Ikasleen zama akademikoa egunetik egunera astunagoa da. Gero eta ikasgai ugariago irakasten dira.

"Maila jaiste" horren bitartez eskolaren begi-bistako porrotari esplikazio erraza eman nahi zaio. Hezkuntza-maila denetan ikasle gehienek ezagutzaren ahulezia egiaztatzen dute irakasleek. **Ikasleek porrot egiten dute, hain zuzen, transmisiozko irakaskuntza-metodo tradizionalak (ez bestek) beraiengan ez duelako eragiten kalitadedun ikaskuntza iraunkorrik.** Horrelaxe gertatu da hori beti. Eskolako azalpenak ez ulertzea, eskola-eduki askori ez hanka eta ez bururik ez bilatzea, azterketak gainditzeko bakar-bakarrik mekanikoki ikastea, ikasitakoa berehala ahaztea eta ikasturte bakoitzean berriro zerotik hasi behar izatea da pertsona askoren esperientzia komuna. Horiek ahazteko joera nagusitzen da, ordea, egungo ikasleen porrota jorratzean.

Ikaskuntza onaren eta irakaskuntza tradizionalaren arteko bateraezintasuna, betidanik hortxe izan bada ere, aspaldi honetan areagotuz doa. Askoren ustez, marjinaltasunean bizi direnen eta etorkinen seme-alabak eta bestelako gaitasunak dituzten ikasleak eskolan sartzeak eskola-porrota larriagotu egin du. Aitzitik, jende hori sartu izanak, aurrerakuntza soziala ekartzeaz gainera, lauso zegoena are eta argiago ikusteko balio izan du: ikasle gehienek baitan irakaskuntza tradizionalak ez du sustatzen kalitadedun ikaskuntzarik ikasle gehienek kasuan, horien gorabeherak zeinahi direla ere.

Beste alde batetik, mundu globalizatu honetan informazioa interneten barrena dabil, komunikazioa birtual bihurtu da, gizateriaren arazo larrien kausak diziplinartekoak dira, ziurtasun absolutuak ezabatu dira eta aurrean dugun etorkizuna kritikoa, segurantzia gabea eta konplexua da; hor, baina, **eskolak lehenaldiko eduki eta metodoei heltzen dio oraino.**

Eskola-porrotaren esplikazioa, hortaz, ez da eskakizun-maila jaiste, ezta eskolaratzea ikasle gehiagorengana hedatu eta denboran luzatzea ere, **indarrean dagoen hezkuntza-ereduari aspaldi amaiera-data etortzea baizik.**

Ez da egia oraingo ikasleak lehenagokoak baino txarragoak direla

Bestelakoak dira, ez kaskarragoak. Egungo haur eta gaztetxoak, lehenagokoak bezala, bizi diren gizartearen emaitza dira. Kolektibo bezala, ume horiek negatiboki juzkatzea ariketa sinplista eta gizarte helduaren ardura ezkutatzeko modu bat baizik ez da. Umeei etengabe kontsumitzera jotzeko eztenka egiten zaie (gogoratu, adibidez, eguberrietako jostailuen iragarkien drama), arrakastaren, garaipenaren eta azalkearen kultura etengabe hedarazten da, haur eta nerabeak etengabe merkatuaren objektu bihurtzen ari dira eta helduek bizimodu azeleratu eta estres-sortzailea egiten dute: errealitate horiek, nahitaez, umeen garapenean eragina izaten dute.

Gizarteak jarrera hipokrita samarra agertzen du: bere burua haur eta gazteen ispiluan ikusten du eta, batzuetan, ikusten eta entzuten duena ez zaio

gustatzen baina, kausak aztertu ordez, ispiluko irudiari erasotzen dio. Eta eskolan hori larri-larria da. Ikasleen jokabidearekin justiziazkoa ez den alarma soziala pizten lagundu dute hedabideek. Irakasleenganako errespeturik eza, berdinaren arteko erasoak, eskola-bortizkeria eta antzekoak, betidanik existitu izan diren egiazko arazoak izan arren (eta orain, agian, maizago gertatzen badira ere), neurri gabe larritu dira eta. kazetaritza sentsazionalistaren bidez, kontsumo-produktu bihurtu dira. Fenomeno horien artean badira makina bat ikasle konpromisodun, ingurugiroarekin kezkatu edota gobernuz kanpoko erakundeetan lanean dabiltzan gazteak, osasun eta drogen arazoekin kontzientzia hartutako haurrak, etc. baina honelakoei ez zaie antzeko garrantzirik ematen; era horretan adingabekoen estereotipo sozial okertu eta negatiboa helarazten zaio gizarteari. Ezin ahanztu dezakegu haur eta gazteak gizarte osoak moldatzen dituela. Deabru gisa agertaraztea irtenbide erraza dugu, erantzukizuna ezkutatzea baldin badugu helburua.

Ikasle askok, beste aldetik, eskolan nagusi dabiren transmisiozko kultura tradizionalarekiko atxikipenik ez izatea lehenaldi frankistako gizarte-ordena autoritario eta zapaltzaileak ezkutatu egiten zuen baina gaur egun garbi asko geratzen da agerian. Aldentze horrek, egungo ikaslea "lehenagokoa baino txarragoa dela" berretsi ordez (askok hori sinesten duten arren), gizartea, batetik, eta eskola eta egungo kontu garrantziak, bestetik, bereizten dituen alde latzaren seinale da.

Ez da egia espainiar irakasleek gehiegizko prestakuntza pedagogikoa eta edukien prestakuntza eskasa dutela

Zeharo alderantziz. Bigarren ikaskuntzako irakasleek, adibidez, edukietan zentratutako lizentziatura batean bost urte eman ondoren (Filosofia, Matematika, Historia, etab.), kasurik hoberenean, bi hilabeteko ikastaro bat baizik ez dute hartu beren etorkizun profesionalean funtsezkoak izango diren hainbat alderdi jorratzeko, hala nola: haur eta gaztetxoaren psikologia; ikaskuntzan eta auto-estimazioan izari afektibo eta sozialak duen garrantzia; existitzen diren eredu pedagogiko eta didaktikoak, eta horien emaitzak; edukiak hautatu eta formulatzeko moduak; materia jakinen ikaskuntzara begirako jardueren diseinua; hainbat plegutako baliabideen (baita ikasleen eguneroko kulturatik gertukoena) erabilera didaktikoa; ebaluatzeko modu desberdinak eta horren eraginak ikasleen prestakuntzan; hezkuntzan dabiltzan joera berritzaileak; giza taldeen dinamika eta elkarlana; ikastetxeen funtzionamendua, familiekiko harremanak eta hezkuntza-sistemaz indarrean dauden lege-arauak.

Bada besterik, ordea. Praktikan funtza duen lanbide horretan, lehen eta bigarren ikaskuntzako irakasleek hartu duten prestakuntzak ez du ikastetxeekiko lotura hertsirik; sendagileen prestakuntzan horrelako zerbait nekez imajina genezake, adibidez. Gainontzean, unibertsitatean (ez ahaztu bertan prestatzen direla etorkizuneko irakasleak) ez da beharrezkorik inongo prestakuntza pedagogiko zein didaktikorik irakasle izateko.

Bidezkoa da hemen Espainiako irakasleek eginiko ahalegina aintzat hartzea, beren lanak agerturiko arazoei erantzuna ematen saiatu izan direlako, hastapenean behar

bezala prestatu ez zeuden arren (baina, bistan da, horren errudun ere ez dira beraiek).

Ez da egia, hortaz, gehiegizko prestakuntza psikopedagogiko eta didaktikoa dutela. Adiera horretan, espainiarrok anomalo gara, beste herrialde askotako aldean. Horregatik iruditzen zaigu premia dela **irakasleen hasierako prestakuntza lehenbailehen eta sakon eraldatzea; horretan onartu behar da, behin betirako, irakatsi ahal izateko ez dela nahikoa edukia jakitea.**

Eskola eta unibertsitatea aldaketaren premian daude

Sakoneko aldaketa ere. Eskola-porrota ez dute agertzen ikastegia bertan behera utzi eta azterketa gaitzen ez dutenek; ikaskuntza iraunkor eta kalitatezko erdietsi gabe gaitzen dutenek ere beste horrenbeste erakusten dute.

Guk proposatzen dugun aldaketa **ezingo da etorri eredu tradizionalaren eskutik**, batzuek eskatzen duten bezala, eredu hori egungo porrotaren errudun dela ez dakitelako. **Ezta, era berean, hezkuntzarekin zerikusia duena merkantzia bihurtzeko politika neoliberalak aplikatuz ere**, Espainiako hainbat autonomia erkidegotan eta egungo unibertsitate-erreformaren funtsezko aspektu batzuetan ikusten den bezala, ezta **plangintza eta kalitatea kontrolatzeko eredu neoteknologiko eta enpresakoak eskolara eronez ere**, ikasleen emaitza akademikoarekin loturiko soldata-pizgarriak ezartzea bezala. **Pertsona eta bere hezkuntza ez dira merkantzia** eta ikaskuntza-irakaskuntzak ez dira produkzio-prozesu tekniko hutsak.

Aldaketa, transformatzeko balio dutela frogatu duten ideia eta esperientzien berreskurapen eta gaurkotzeak ekarriko dituzte. Irakaskuntzako Erakunde Askea, Eskola Berria, Eskola Modernoa, Misio Pedagogikoak, Pedagogia Berritzeko Mugimenduak eta gainerakoak, gure lehenaldiko adibide baliotsuak dira. Giner de los Ríos, Freire, Freinet, Montessori, Rosa Sensat, Piaget, Vygotsky eta antzeko irakasle eta ikerlari itzaltsuen ekarpenak edo mundu zabalean ospetsuak diren (Morin, esaterako) intelektualek ere baliagarri izan daitezke aldaketa prozesu hori argitzeko.

Hona hemen **behar dugun eskolaren norabidea** adieraziko duten **printzipioetako batzuk**:

1. Ikasleen eta berauen erabateko (gorputzaren, adimenaren, alderdi sozialaren, praktikoaren, emozionalaren eta etikoaren) garapenean oinarritua.
2. Gure munduko problematika esanguratsuekin loturiko funtsezko edukiak izango dituen, kopuruaren gainetik kalitatea lehenetsita, materien bereizketaren aurrean integrazioa lehenetsita.
3. Ikaskuntza zehatz eta funtzionalak eta gaitasun orokorrak (ikasten ikastea, adibidez) sustatuko dituzten ikerkuntza-metodologiak erabiliko dituen. Bertan, ikasteko beharrezkoa den esfortzuak zentzua izango du.

4. Didaktika eta antolakuntza alorretako baliabide moderno eta era askotakoak izango dituen. Garai honetako bitarteko teknologikoak era adimentsu eta kritikoan baliatuko ditu eskola horrek.

5. Bertan inplikaturik dauden guztiak (ikasle, irakasle, ikastegi, familiak eta administrazioa) bilduko dituzten prestakuntza eta partaidetzazko ebaluazio-pleguak izango dituen; barne-motibazioa hobetzeko xedez sustatuko du eta pertsonaren alderdi guztiak aintzat hartuko ditu.

6. Ongi prestatu eta profesio honekin identifikatuak dauden irakasleekin. Ezagumenduaren artekari kritikoak izango direnak. Lankidetzan eta sarean lan egiteko prest egongo direnak. Berrikuntzaren eta ikerkuntzaren bultzada sentituko dutenak.

7. Gizabidezko ratio batekin, irakasle laguntzaile eta praktikakoekin osatua. Diseinatzeke, ebaluatzeke, bere burua trebatzeke eta ikertzeke astirik hartuko dutenak.

8. Giro mesedegarri batean jardungo dutenak; bertan espazioek, denborek eta altzariak adingabekoen premia eta erritmoak errespetatuko dituzte.

9. Hezkuntza-komunitate osoak autonomiaz kogestionatua. Ikasle-irakasleen erantzukizun partekatua sustatuko duena. Tokiko eta munduko ingurunearekin konpromisoz jardungo duena.

10. Benetan publikoa eta laikoa. Adostasun politiko eta sozial zabalean erdietsi eta helburu handietan oinarrituriko gutxieneke lege-markoan sartuko dena.

Planteatzen ari garena ez da miragunerik. Horrelako eskola toki askotan —baita gure artean ere— errealitate bihurtzen ari dira irakasle, ikasle eta guraso ugari. Testimonial izateari uzteko, beharrezkoak dira borondate politikoa, konpromiso soziala eta epe luzerako ikuspegia, beste hainbat herrialdek frogatu duten legez. Horregatik, egun nozitzen dugun irakaskuntza tradizional horren aurka, hurrengoa adierazten dugu:

Bestelako eskola bat beharrezkoa da, dagoeneko martxan dago eta gainera posible da.

1. OHARRA: Agiri honen helburua ahalik eta gehien hedapen eta sostengu handienak lortzea da. Berarekin bat egin nahi badu hurrengoan sar zaitezke:

www.redires.net

Bere oihartzuna biderkatzeko, Espainia osoan argitaratzen den egunkarietako batean plazaratu nahi dugu, sinadura-kopuru handi bat erdietsitakoan. Plazaratze hori, borondatez egingo diren diru-ekarpenekin finantzatuko da. Bertan parte hartu nahi baduzu, transferentzia egin beharko duzu Triodos bankuko (banka etiko eta iraunkorra) kontu korrante honetara:

1491/0001/24/0010005933,

“Asociación para la Investigación y Renovación Escolar” erakundearen izenean.

2. *OHARRA: Agiri hau pertsonak eta erakundeek sina dezakete. Bigarren kasuan, izen-abizenak adierazteko espazioan erakundearen izena idatzi beharko da.*

3. *OHARRA: Plazaratze prozesuaz informaziorik jaso, bertako gastuen balantzearen berri izan edo Agiri honekin loturiko bestelako ekimenik ezagutu nahi baduzu, idatzi "iruzkina" ataltxoan **"informazioa jaso"**.*

RED IRES-ek (Investigación y Renovación Escolar).SUSTATUA

www.redires.net